

 **169.18.** *Etxean telesaila*

Telesail honetan, hiru lagun astean behin elkartzen dira, bideo-dei bidez. Egoera bat edo beste dela, umorezko solasaldiak izaten dituzte.

Zuk Oihaneren rola jokatuko duzu. Esan nabarmendutako pasarteak kameraren aurrean.

- Aitor —Ieee, Uxue, zer moduz?
- Uxue —Zer moduz? Porru eginda.
- Aitor —Zer, bada?
- U —Goizean, mendi-bueltaxka egin dut, eta, Aitor, benetan, oso-oso ahul nago.
- Oihane —Eeee. Egun on, gazteak. Zer kontatzen duzue?**
- A —Bada, hemen, Uxue makal dagoela.
- O —Kar, kar. Egongo ez da, bada, makal, *Lambrusco* edan eta txokolatea jan besterik ez du-eta egin, kar-kar.**
- U —Kar, kar. Mendi-buelta ederra egin dudala, eta ufa! Bide batez, a zer plastiko- eta hondakin-piloa ikusi dudan! Laster, pikutara doa Lurra.
- O —Bai, beste pandemia batek etorri beharko du Lurra berriz zaintzen has gaitzen. Orduantxe murriztu zen kutsadura-maila!**
- A —Ez dugu ezer ikasten. Lehen bezala gaude.
- O —Nik, behintzat, ez dut ulertzen jendeak zergatik ez duen planeta pixka bat gehixeago zaintzen.**
- U —Oihane, zertan ari zara?
- O —(Esku artean plastikozko platerak) Hau? A, afaria daukagu gaur Jaioneren familiarekin. Denak datoz, ufa!**
- U —Eta plastikozko platerak erosi dituzu?
- O —Bai, bada! Eta sardexkak eta koilarak, eta edalontziak ere bai.**
- U —Oihane, agian, zera, plastiko gehiegitxo, ez?
- A —Ozeano osoan baino plastiko gehiago duzu hor.
- O —Zer nahi duzue? Segurtasun-kontuengatik da. Horixe da garbiena!**
- A —Bueno, Oihane, antiekologiko samarra, ez?
- U —Eta horrela ez duzu harrikoa egin beharrik, ezta?
- O —Et, et, et. Nik ekologia-kontzientzia handia daukat, e. *Pajitarik* ez dut erosi.**
- U —Saltzen ez dituztelako.



O —E? A, agian. Ez nituen ikusiko, kar-kar. (*Plastikozko botila batetik ura edaten*)

U —Eta hori? Ura plastikozko botilan?

O —Zera, pitxerrarekin atzera eta aurrera ez ibiltzeko.

A —Planeta suntsituko duzue afari horrekin.

O —Et, et, et. Lasai, e. Zerbezak, behintzat, latan erosi ditut.

A —Aber, Oihana, latek kristalezko botilek baino gehiago kutsatzen dute.

O —Joe, eta, orduan, azkenean zertan gara? Zer egin behar dut, *litronak* erosi?

U —Ai, ene! Bueno, ondo ibili zuen afari “ekologikoan”!

A —Bai, hurrengora arte.

O —Agur!